



LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2023

MUNGIA



ANTOLATZAILEAK
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK
IMPULSAN



NORTZUEK ETA NOLA PARTE HARTU MUNGIAKO LEHIAKETAN

Nortzuek eta nola parte hartu Tokiko Lehiaketan:

Mungian erroldatuta edo Mungiaiko ikastetxeetan ikasten duten 12 eta 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago.

Lehiaketa nagusian parte hartuta, herriko lehiaketan parte hartuko duzue zuzenean.

SARIAK MUNGIAN

Tokiko sariak:

Aurtengo sariak honako hauek izango dira:

1. kategoriako SARIA: 150,00€
2. kategoriako SARIA: 250,00€
3. kategoriako SARIA: 350,00€

EPAIMAHAIA MUNGIAKO LEHIAKETAN

Tokiko epaimahaia:

Herriko lehiaketarako, antolatzaileek diseinatutako epaimahaia Mungiaiko Udaleko ordezkariak osotuko dute; eta, hain zuzen ere, berdintasun politiketan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako politiketan inplikaturik dauden pertsonak izango dira.

EPAIMAHAIAREN EBAZPENA

Tokiko epaimahaiaren ebazpena:

Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da eta 2023ko azaroaren 21ean emango da ezagutzera. Erabaki hori zuzenean jakinaraziko zaie irabazleei, eta Udalaren web-orrian (www.mungia.eus) argitaratuko da.

Sariak azaroaren 25aren inguruan banatuko dira, Emakumeek jasaten duten Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta egingo den ekitaldian.

Gainerako jardueren inguruko informazioarekin batera argitaratuko da ekitaldia zein egunetan, orduetan eta formatotan egingo den.

LEGE ALDERDIAK

Lehiaketaren lege-alderdiak:

Egileek aurkeztutako lanen lagapenak lehiaketa nagusian dituen baldintza berdinak izango ditu; lan horiek Mungiako Udalaren komunikabide desberdinetan argitaratu ahal izango dira.

Epaimahaiak aintzatespen sariak eman ahal izango dizkie merezi duten lanei.

Mungiako Udalak sariak eman gabe utz ditzake.

MUNGIAKO LEHIAKETAREN KONTAKTUA

Mungiako Berdintasunerako Zerbituarekin hartu-emanetan jartzeko:

berdintasuna@mungialde.eus

94.674.10.43 / 747. 414.272

**BELDUR
BARIK
#JARRERA
2023**